



Beltxargak atsedena hartzen, belarminak loratzen... Natura nagusitzen da Izadian, Baionako portuko industriari hurbil izanik ere. CAIZKA IROZ - ANGELLUNO HERRIKO ETXEA

Naturaren pausaleku

Bihar zabalduko dute Izadia parke ekologikoa Angelun. Animaliak eta landareak babesteko eta ezagutarazteko hamalau hektareako eremua naturaren menpe.

XAN AIRE
Angelu

Baionako portuaren mugimendutik hurbil, erraz kutsatua izan zitekeen. Angeluko hondartzetatik hurbil, *Disneyland* berde bat izan zitekeen. Baina Lapurdiko xoko batean galdurik zegon eremu hori naturaren pausaleku bihurtzea deliberatu dute. Bertako animaliak eta landareak babestu, eta jendeari erakutsi, azaldu, maitarazi. Horiek denak dira bihar zabalduko duten Izadia parkearen xedetak.

Naturak eskainitako opariak ez dira, beraz, desagertuko. Berezitasun franko ditu Izadiak. Hasteko, bi aintzira: iparraldekoa ur gaziarekin, hegoaldekoa gezaltsua. Bakoitza bere ingurumenarekin. Horiek horrela, parkeak anitz abere ikusten du. Baina lekuaren ingurumena txoriei gustatzen zaie gehienik. Horregatik, aintziren bazterrean, edo erdian, hainbat hegazti ibiltzen da. Gehienak migraziokoak dira, Izadian atsedena hartzeko hor direnak. Etengabeko mugimendu honetan, ilunabarretan pausatzen dira txoriak, bihar-munean ahal bezain goizik abiatzeko. Dena den, batzuek gustura pasatzen dituzte egun pare bat Izadian.

Ureko txoriak ekarrarazten dituzte bi aintzirek: ahateak, antzarak, brantak, beltxargak, ubarroiak. Ur bazterretako hegaztiak ere ikus daitezke: lertxunak, lertxuntxoak, txirriak, martin arrantzaleak eta hegaberak. Horiek denak behar duten janaria aurkitzen dute aintziretan: gan-



Iparaldeko aintzirak ur gazia dauka, Aturirekin eta ozeanoarekin zuzenki lotua baita. CAIZKA IROZ

bak, karramarroak, igelak eta hainbat arrain txiki, ibaietakoak zein itsasokoak.

Baina beste txori batzuk ere gustura egoten dira Izadian. Lapar sietan eta landare batzuen erdian bizilekua duten txoriak: zozoak eta txolarreak. Pasaiaikoak ere geratzen dira, biligarroak eta laude-tak bezalakoak, baita ainarak edo txantxangorriak ere, parkeko eltxo eta euli kopuru handiek ekarraraziak. Preseski, hainbat intsektu ikus daitezke Izadian: politenak, sorgin-orrazak, tximeletak edo marisorginak. Inurriak ere daude, lurpean ala arroka azpian dauden intsektuak aipatu gabe.

Ugztunetan, bat dago ur bazterren bizi dena: koipua. Horrekin batera, marraskari txikiak, saguak bezalakoak. Katuak ibiltzen dira horien ehizatzen. Parkean bizi diren katuak dira, etxeetatik ihes egin dutenak eta gustura daudenak orain Izadian. Untxiak ere nonahi daude. Horien ehizatza azeriak etortzen omen dira. Parkeko arduradunek ez dakite zenbat azeri dauden, gauaz bai ez direlako ateratzen, eta inbentorio bat egitea zaila baita. Baina gaueko ibilaldiak antolatuta nahi lituzkete datorren urtean, abere arraro horiek hobeki ikusteko.

BABESTEKO ETA SUNTSITZEKO. Abereen munduan egunak bakean iragaten baldin badira ere, landareen arteko gerra etengabea da. Lekuak eta exotikoen arteko borroka. Anitzek ezagutzen duten panpa lezak inbaditu egin du Izadiako parte bat ere. Jatorri argentinarra duen lore hori Euskal Herriko hainbat tokitan topa daiteke: bide bazterretan, lorategietan... Europara XIX. mendean iritsi zen. Inbaditzaile arrisksua da, inguruko landaredia akabatzen duelako, eta oso azkar ugaltzen delako.

Gutxiago ezagutzen dena, baina panpa lezarekin batera iritsi zena Europara: *baccharisa*. Zuhaxka baten itxura du, lore zuriekin. Baina lekuko landareak suntsitzen ditu horrek ere. Landare exotiko horiek suntsitu nahi dituzte parkeko arduradunek. «Baina pausoz pausoz egin beharko da», azaldu du Ar-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)